

D

Roald Amundsen esploratzaile norvegiarra beraien aurretik heldu zela ohartu ziren. Amundsen-en helburu bakarra Hego Polora heltzea zen eta, ondorioz, Scott baino 35 egun lehenago lortu zuen Hego Polo geografikora heltzea.

Nekea, gosea eta muturreko hotzaren ondorioz, -40 gradutako haize bortitzak eta elur ekaitzak jasan ostean, bost esploratzaileak 1912ko martxoaren 29 ren inguruan beraien espedizio kideengatik laguntza izateko 18 kilometrotara zirela, hil egin ziren.

Bere lehenengo espedizio ezaguna, Benidormera izan zen. Bertan bere herrikide galdu batzuk topatu zituen eta Britainia Handira itzultzen lagundu zien.

Erresuma Batuan jaio zen **1868.** urtean. Britainiar armadako ofizial eta esploratzailea izan zen eta bere gidaritzapean Antartikara bi espedizio egin ziren: 1901-1904 urteetan "Discovery" izeneko espedizioa, eta 1910-1913 artean "Terra Nova" espedizioa.

Pinguinoekin jolastea espedizioaren helburu nagusietako bat zen eta hainbeste motatako pinguinoak topatu zituztenez, orduak eta orduak eman zituzten haiekin jolasean eta primeran pasa zuten.

Britainiar taldea guztiz txundituta geratu zen. Hiru egun pasa eta gero, hau da, **1912**ko urtarrilaren 20an, kostaldera bueltan abiatu ziren.

Bueltako bidaian "*Royal Geographical Society*"-k agindutako ikerketak egiten jarraitu zuten eta, ondorioz, denbora gehiago galdu zuten. Egindako ikerketa zientifikoei esker, ekarpen garrantzitsuak egin ziren, biologia eta zoologia arloetan batez ere.

Espedizioaren helburu nagusietako bat Hego Polora heltzea zen, baina benetako asmoa ikerketa zientifikoak egitea zen. **1912**ko urtarrilaren 17an heldu ziren Hego Polora, ahalegin handiak egin eta gero.

Bidaia egiteko artilezko jantziak aukeratu zituen eta bidaia egiteko zaldiak eramatea erabaki zuen; hartutako erabaki haiek ez ziren egokiak izan.

Amundsen-ek britainiarrentzat eskutitz bat utzi zuen norvegiar banderaren ondoan, denda baten barruan, lehia irabazi zuela jakinarazteko.